

Merkatuak automatikoki doitzen direla suposatuz bermatu ohi da analisi ekonomikoa, frikziorik gabeko unibertso batean jardungo balute bezala, baina hori "esku ikusezinaren" metaforaren gehiegizko erabilera besterik ez da.

Adam SMITHeK garbi esplikatzen zuen 1776an faktore instituzionalek zenbateko pisua zuten gizabanakoen jokabidearen baldintzatzaile bezala, eta, bi mende geroago, Ronald COASE Nobel Sariak transakzio-kostuak deitu dio merkatuak funtziona dezaten agente ekonomikoek ordaindu behar duten prezioari.

Merkatu horietan ondasunak, zerbitzuak edo produkzio-faktoreak salerosten dira diruaren truke, eta hori ezin da egin aurretik jabetza-eskubidea aitortu gabe, eta bi alderdientzat ere errazagoa izango da, joko-arau ezagunak, onargarriak eta aurretik finkatutakoak jartzen badira, erabili beharreko diru-mota zehazteko, kontratua beteko dela bermatzeko eta betetzen ez bada zigortzeko.

Arau horiek aldioro negoziatu beharko balituzte salerosketa egiten dutenek, orduan subjektu pribatuak ariko lirateke transakzio-kostuak beren gain hartzen oso-osorik, eta prozesu hori neketsua eta garestia izango litzateke, eta baita bideraezina ere, azkenean. Gizabanakoek eta enpresek jarduteko marko instituzionala definitu eta bermatzeko, Estatu bezalako organizazio kolektiboak sortzeak, merkatu egiten dituen haiek jasan beharreko transakzio-kostuak eta merkatuen funtzionamendua eta hedapena ahalbidetzen ditu.

Beraz, Estatuak ekonomian duen lehenengo eginkizuna marko instituzional bat - agenteek beren transakzioetan bete beharreko joko-arauak- konfiguratu eta mantentzea da; eta egiteko horri buruz, noski, ezin da esan azalekoa edo zirkunstantziala denik, baizik eta gizarte ororen antolamendu ekonomikoaren oinarria bera.

Baina gaur egun herrialde industrialetako ekonomia ikusiko lukeen kanpoko edozein behatzailek berehala ikusiko luke Estatu ez dela sektore pribatuarentzako legegile eta arbitro izatera mugatzen, baizik eta alderdi askotan parte-hartzaile aktiboa dela merkatuetan.

Kasu batzuetan elkartrukatu beharreko produktuen prezioak, kopuruak eta motak baldintzatzen ditu, arauketa oso zehatzak eginez; adibidez, gutxieneko soldata, tarifa elektrikoak edo janariak bete beharreko kalitate-arauak finkatuz.

Beste kasu batzuetan agente ekonomiko gisa jokatzeko du, fondo mailegagarrien merkatuetara jotzen duenean edo sektore pribatuarekin konkurrentzian jartzen denean jarduera enpresarialetan sartuz; horrela izaten da defizita finantzatzeko zorra jaulkitzen duenean, edo enpresa publikoak gestionatzen dituen garraioa, osasuna, meatzaritza edo sistema finantzarioa bezain sektore desberdinetan.

Produkzio-faktoreen merkatuetatik ateratzen den errentaren banaketa ere aldatzen du, zuzeneko zerga gehikorren bitartez eta errentak transferitzeko sistemen bitartez, pentsioen bitartez adibidez; edota ekonomiaren finantzaketa-baldintzetan eragiten du politika monetarioaren bidez.

Jarduketa horiekin sektore publikoa jarduera ekonomikoan inplikatzeko da merkatuetan lortzen diren emaitzak zuzendu arte, hobetzeko asmoarekin, noski, eta, ustez, eskari sozial orokorrak diren eta esku-harmen hori gabe bermatzen ez diren helburuei erantzunez.

Helburu horietako lehenengoa "merkatuaren hutsegiteak" deitu horiek konpontzea da, alegia monopolioa, kanpo-efektuak (beste baten gain hitzartu gabeko ondorioak eragiten dituen agente baten jarduketa, kutsaduraren kasuan adibidez) edo ondasun publikoak (lehiakide gabeko kontsumoko ondasunak, eskusioa egiteko aukerarik ez dutenak, adibidez defentsa nazionala) bezalako egoerak, horrelakoetan merkatuak berak bakarrik ezin baitu baliabide-esleipen efizienterik lortu.

Bigarren helburua errentaren banaketa berdintzeko asmoarekin aldatzea da, dirutan (desenplegu-subsidioa) edo espezetan (hezkuntza) transferentzia ugari egiten dituen gastu publikoaren politika erabiliz, zerga-sistema gehikorrek finantzatuta.

Jeneralean onartzen diren helburuetako hirugarrena ekonomiaren asaldurik ziklikoak murriztea da, enplegu-maila altuak eta prezioen egonkortasuna elkarrekin bateragarriak egingo dituen hazkunde-bide orekatua lortuz, beraz.

Laburtuz, sektore publikoak egiteko bikoitza betetzen du herrialde industrializatuetako ekonomietan: subjektuek operatzeko duten marko instituzionalaren sortzaile eta bermatzailea da, eta baita prozesu ekonomikoetan aktiboki parte hartzen duen agintea ere, merkatuetan lortuko liratekeen emaitzak zuzenduz -hoberako zuzenduz, noski-.

Zenbaitetan ordenazio-politika deitu izan zaio lehenengoari, eta prozesu-politika bigarrenari.